

3 kluba

3
eitb
**ENE
KANTAK**



Sartu dadin algara gure bihotzetara

2020ko abendua



Go!
dizen

imagin
KIDS

www.eitb.eus/3kluba

eitb

CHRIS
RIDDELL

Alizia Herrialde
MIRESGARRIAN

IDAZLEA
LEWIS CARROLL

Haur, gazte
eta helduen bihotzak
bereganatu dituen istoriorik maitatuenetako bat.

Murgildu zaitez fantasiako mundu eder honetan
Aliziaren eskutik!



Inakurriz bizzi!

ibaizabal
www.ibaizabal.com



AURKIBIDEA

Eduki guztiak eskura 3 KLUBA APPan

5.
or.

3 KLUBA kideen abantailak

8.
or.

3 Ene kantak

10.
or.

Bitartean etxetik ikasten

14.
or.

Goazen

18.
or.

Olentzero

24.
or.

3 kluba

3 kluba aldizkaria
EITB
Basurtuko Kaputxinoak, 2
48013 Bilbo
94 656 30 00

3 kluba
94 656 31 22
3kluba@eitb.eus
www.eitb.eus/3kluba

Edizio arduraduna: EITB

Kolaboratzailea:
Ibaizabal argitaletxea

Diseinua, ilustrazioa eta
digitalizazioa: eitb.eus

Kaixo, lagun:

2020 urtea gogoan izango dugu 3 klubeko kideok, izan ere, etxean gelditu beharra izan dugun sasoian hainbat ekimen egin ditugu elkarrekin. 'Bitartean etxetik ikasten' saioa osatu dugu eta kontu ugari ikasi ditugu, matematika ariketetatik hasi eta musika jotzeraino. 'Erronkan' ere aritu gara aurten, hainbat ikastetxetako ikasleen abileziak gureganatuz. '3 ENE KANTAK' saioak bigarren denboraldiari ekin dio eta gure lagun kuttunenak musikaz girotuta ikusi ditugu egunero.

Gainera, lagun berria egin dugu 3 klubean, berezia bezain bihurria, Antxus txoria!! Oraindik ezagutzen ez duzenok, laster izango duzue bere berri, adi-adi egon!

Klubeko kide izanik, gainera, hainbat gune bisitatu eta sari ugari gozatzeko aukera izan dugu: liburuak, zinema aretoetako pelikulen estreinaldiak, opariak...

Gabonak gainean ditugu jada eta urtero legez, Olentzerori zuen eskutitza idazteko gunea dugu 3 klubaren webgunean. Gainera, opor egunotan izango dugu zer ikusi eta zertaz gozatu ETB3n: pelikulak, ikuskizun eta emanaldi bereziak, saio berriak, eta gogokoan ditugun marrazki bizidunak. Gogoratu, horiek guztiak ikusgai daudela 3 klubaren APPan, webgunean eta telebista konektatuetan.

3 klubean ikusiko dugu elkar!




ESTREINALDIAK ETB3n

Marrazki bizidun ugari estreinatu ditugu aurten ETB3n, eta istorio mordoa ekarri dizkigute lagun maitagarri berriek. Abenturaz abentura ibiliko gara beraiekin!



3 kluba aplikazioa, marrazkiak eta saioak nonahi eta noznahi


3 kluba, zure mugikorrean



Zure gustuko marrazki bizidunak eta telesailak nahi duzunean ikusi zure mugikorrean bertan. Jaitsi gure aplikazioa eta eraman zurekin nahi duzun lekura zure eduki gustukoena. iOS, Android, Windows Phone eta Blackberry mugikorretarako erabilgarri dago.



3 kluba, zure tabletean



3 klubaren edukiak tabletean ere gozatu ditzakezu. Umeek beraien gustuko edukiak jasotzeko primerako euskarria da. Jaitsi gure tableteko aplikazioa, iOS, Android, Windows eta Kindle aukerretarako erabilgarri dago.



3 kluba, zure Smartv telebistan

Internetera konexioa duen telebista baduzu, 3 klubaren edukiekin gozatzeko hainbat aukera dituzu. Telebista konektatuetarako propio prestatutako 3 kluba aplikazioa hainbat marketan eta dispositibotan eskuragarri dago, baita Euskaltelek nabarmendutako edukien artean ere. Halaber, ETB3ko botoi gorria erabilita ere eskura izango dituzu zure gustuko eduki guztiak.

Honako hornitzaile hauetan eskuragarri:

Samsung, Philips, HbbTV, AndroidTV



Etxean geratuko naiz



Aurten bizi izan dugun egoera bereziari aurre egiteko, etxean gelditzea egokitu zaigu eta hori kontuan izanda, "**Etxean geratuko naiz**" argazki eta bideo lehiaketa jarri genuen martxan 3 klubeko kideek egoera berezi hura nola bizi zuten jakiteko.

Parte hartze bikaina izan zuen ekimenak 500 argazki baino gehiago eta 40 bideotik gora jaso genituen. Denetarik egin duzue, sukaldean aritu, eskulanak, abestu, antzeztu, dantzan, eta abilezia mordoa. Mila esker ekimen berezi honetan parte hartu duzuen guztioi!

3 kluba guztiok osatzen dugulako, **denon artean lortuko dugu!**





Ikastetxeen arteko erronka dibertigarriak ekarri dizkigu **ERRONKAN** saioak ETB3ra, Iholdi Beristain eta Ekain Iburgurenen eskutik.

Saio bakoitzean bi ikastetxeko ikasleek hartu dute parte. Euskara modu erakargarrian edo dibertigarrian jasoz, hainbat erronka ekarri dizkigute: fisikoak, sukaldaritzari buruzkoak, magiarekin zerikusia dutenak, eskulanak, zientzia esperimentuak eta baita hizkuntzarekin lotutakoak ere.

Gainera, Eskolen Erronka atalean, ikasleak eurak izan dira erronkak proposatu dituztenak.

Erronka guztiak dituzu ikusgai saioaren webgunean www.eitb.eus/erronkan eta baita 3 klubaren aplikazioan zein telebista konektatuetan ere.

Jaso zure erronka, eta aurrera!




3 kluba

Kideen abantailak

DOAKO SARRERAK

3 klubeko kideek hainbat abantaila eta opari lortzeko aukera dute, eta baita doako sarrerak ere. Jarraian dituzun gune horietara joateko sarrera bat oparituko dizugu, helduentzako sarrera bat erosita.



ZURE URTEBETETZEAN ZORIONDU EGINO ZAITUGU

Zure argazkia telebistan eta webgunean ikus dezakezu zure urtebetze egunean!



PORT AVENTURA PARKERAKO SARRERA

Port Aventura parkerako sarrera doan jasoko duzu!

ZOZKETAK, EKITALDIETARAKO SARRERAK, PRODUKTU SORTAK...

Zozketa guztietan parte hartzeko aukera izango duzu!



LIBURUAK OPARI!

Ibaizabal argitaletxearen eskutik, liburuak zozkatuko ditugu hileroko, hil horretan urteak bete dituzuen kideen artean.



PortAventura parkerako sarrera doan!

EITBk eta Caixabankek elkarrekin sinatutako hitzarmenari esker, 3 klubeko kideek abantailak dituzte, PortAventura parkera joateko sarrera, esaterako.

Kideek posta elektronikoan jasotako kupoia eta imaginKids APPa erakutsi beharko dira parkeko leihatilan.

Helduentzako sarrera bat erosita, jaso umearentzako sarrera bat doan, eta parkean egun zoragarria igaro!



PortAventura WORLD

VUELVE A COMPARTIR EXPERIENCIAS ÚNICAS

Invitación NIÑO GRATIS

COMPRA TUS ENTRADAS DIRECTAMENTE EN TAQUILLAS

CONSULTA LAS MEDIDAS DE PREVENCIÓN EN PORTAVENTURAWORLD.COM

Podrás beneficiarte de una entrada gratuita de un día de junio hasta los 14 años de acceso a PortAventura Park, previa compra de una entrada de adulto de un día para PortAventura Park. Válido una sola vez por día. No válido para otros parques e instalaciones de PortAventura World. Promoción válida del 30/07/20 al 31/07/21 unless indicados y según calendario y horario de apertura de PortAventura Park y de Ferrari Land, respectivamente. No se aplican cupones, entradas y tarjetas a cambio ritas, empujados o fotocopias. Promoción no acumulable a otras ofertas y promociones. No cabezale por su valor económico. Podrá darse vista. Para saber la promoción es imprescindible presentar personalmente en taquilla del parque la app de imaginKids en el móvil.

El funcionamiento de ciertas atracciones puede verse temporalmente limitado.

Galaxy 1162

Kupoia 2021eko urtarrilaren 10era arte erabili ahalko da, betiere, egutegiaren arabera. Covid-19aren ondorioz, atrakzio batzuen erabilera aldi baterako mugatuta egon daiteke.

Oparia emateko mezurik jaso ez baduzue, jarri gurekin harremanetan 94 656 31 22 telefono-zenbakira deituta edota idatzi 3kluba@eitb.eus helbidera

'3 ENE KANTAK' SAIOAREN DENBORALDI BERRIA!

Eneko, Nere, Urbi, Astonauta, Satorjator, Astotxiki eta Satortxiki 3 ENE KANTAK saioko gure lagunak denboraldi berrian murgilduta dabilta, ETB3ko goizak zein arratsaldeak kantuz, dantzaz eta abenturaz betez.

3

eitb

3 ENE KANTAK



Denboraldi berri honetan atal berriak ditugu saioan astero-astero. “Ikusi eta ikasi” atalean, ekologia, natura, genero-berdintasuna, adiskidantza, elikadura eta denetariko gai interesgarriekin lotutako ezagutzak ekartzen dizkigute gure lagunek. “Urbi detektibea” atalean hainbat gune bisitatuko dituzte gure lagunek eta kontu interesgarri ugari ikasiko ditugu astero beraiekin.



3 ENE KANTAK saioa eduki guztiak “3 Ene Kantak” saioaren webgunean, www.eitb.eus/3enekantak, zein 3 klubaren euskarri digitaletan ditugu ikusgai. Gainera, 3 kluba aplikazioan telebistan eman ez diren eduki esklusiboak ere baditugu!

ESKURATU ZURE PRODUKTU GOGOKOENAK

3 kluba






Imajina ezazu mundu berri bat

**11 urte arteko
txikientzat**

**App honekin familian
ikastea jolas moduko bat da**



imagin
KIDS

imaginKids app berriarekin zure kanal gustukoenen bideoak eta jolasak izango dituzu eskura, eta oso modu dibertigarrian jolastu eta ikasiko dugu. Zeren zain zaude?

Deskargatu app-a eta has dadila jolasa!



‘Bitartean, Etxetik Ikasten’

Jaurlaritzak eta EITBk bultzatzutako hezkuntza saioa, ETB3n

Urte berezia izan da aurtengoa eta eskolara joan ezinda gelditu garen hilabeteetan, eskola telebistaz jaso dugu, ETB3n, ‘**Bitartean, etxetik ikasten**’ saioaren bidez.

Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduta, ikasgai ugari jaso ditugu hezkuntza-saio berrian, gure 9 irakasleek osatutako sormen fabrika berezian.

Gainera, 3 klubaren euskarri digitaletan ere ikusgai daude hezkuntzako edukiak, adin tarteka banatuta: **webgunean**, **APPan**, **HBBTV** eta **Smart TV** zerbitzuetan eta **Nahieran**-en.



Eta bitartean etxetik ikasten
Mundua gelditu egin zen,
ta gu bitartean, etxetik ikasten

Zenbat une, momentu eder
pantailaren alde honetan
Maitasuna biderkatu da
matematika saioetan

Gazte, ume, haur eta heldu
goizero elkar topatuz
Gurera hurbildu zarete
hainbat sekretu kontatuz

Eta bitartean etxetik ikasten
Mundua gelditu egin zen,
ta gu bitartean, etxetik ikasten

Oso gustora ibili gara
zuen guztion aurrean
Kamara, ekipo eta lagun,
Bagoaz hemendik penaz

Zaindu etxeakoak zaindu lagunak
planeta zaindu topera
Txarrenari onena ateraz
aurrera goaz batera

Eta bitartean etxetik ikasten
Mundua gelditu egin zen,
ta gu bitartean, etxetik ikasten

Abestiaren egilea:

Naroa Gaintza

www.eitb.eus/etxetikikasten



Lur eta amets, hau bai abentura!

Lur eta Amets biki bihurriek aurkeztutako saioak marrazki bizidunak eta familia lehiaketa batu ditu.

Gauero, Lur eta Amets amonaren gainan elkartu dira marrazki bizidunak ikusteko, eta jarraian, ikusitako animaziozko kapituluaren inguruko galderak, jolasak, ekintzak eta probak gairatu nahian ibili dira eguneko gonbidatuekin.

Hartara, marrazki bizidunen atal bakoitzean landutako garai historikoa hobeto ezagutzeko honako probak egin dituzte:

Mimika

garai historikoarekin lotuta dagoen zerbait mimika bidez adierazi beharko du taldeko partaide batek eta besteek asmatu

Mimika

kapituluan agertzen diren esaldi batzuk euskaraz beste modu batera nola esango liratekeen asmatu beharko dute partaideek.

Marrazketa

garai historikoarekin erlazionatutako objektu edo egoera bat marrazkien bidez adierazi beharko du taldeko partaide bateketa besteek asmatu.

Galderak

garai historikoarekin lotuta dauden galderari erantzun beharko diete partaideek.

Gogoratu, atal eta lehiaketa guztiak dituzu ikusgai www.eitb.eus/luramets webgunean eta 3 KLUBA APPan zein telebista konektatuetan.

Irakurketa txokoa

Sumendiak

Egilea: **Fleur Gaugey**
Marraskilaria: **Tom Vaillant**
Bilduma: **Albumak**
Orrialdeak: **24**
Adina: **6 urtetik aurrera**

Laburpena:

Kontuz liburu hau zabaltzen duzunean!
Sumendiek orro egiten dute eta eztanda egitear daude!
Sekulako erupzioak ikusi ahalko dituzu, denboran atzera Joan eta Ponpela bisitatu, bolkanologoek zer egiten duten jakin eta Lurraren haserreari buruzko Hawaiiako eta Japoniako elezaharren berri ikasi.
5 pop-up ditu barruan!



Goliat eta izarrak

Egilea: **Patxi Zubizarreta**
Marraskilaria: **Jokin Mitxelena**
Bilduma: **GARALAR-MARALAR (1. zk.)**
Orrialdeak: **24**
Adina: **7 urtetik aurrera**

Laburpena:

Maren eta Aiert Txindokira joan dira Joanes artzainarekin. Kasik igerian sentituko dira han. Kasik hegatan. Elur jausi beldurgarri baten berri izango dute bertan. Eta pintore itsuarena. Eta izarrak edaten dituen Goliat txakurrarena...

Alizia Herrialde Miresgarrian

Egilea: **Lewis Carroll**
Marraskilaria: **Chris Riddell**
Bilduma: **Albumak**
Orrialdeak: **328**
Adina: **8 urtetik aurrera**

Laburpena:

Beste asko bezain aspergarria den egun batean, Aliziak lo hartu du eta Herrialde Miresgarrian sartuko da Untxi Zuriaren eskutik. Han, Sasidortoka, Bihotzetako Erregina, Cheshireko katua, Dukesa, Kapelagilea eta Martxoko Erbia ezagutuko ditu, beste hainbat fantasiatzko pertsonaiaren artean. Haiekin askotariko abenturak biziko ditu.



Ilargiko zaindariak arriskuan

Egilea: **Aitor Arana**
Marraskilaria: **Manu Ortega**
Bilduma: **Gaztetxo! (37. zk.)**
Orrialdeak: **88**
Adina: **10 urtetik aurrera**

Laburpena:

A8 androidea naiz eta ilargira eraman nahi zaituztet, abentura zirrargarriak bizitzera. Ilargiko Beta hirian Amaia, Meri, Dorian eta Anghelo neska-mutikoak nirekin bizi dira, eta zeregin garrantzitsu bat daukagu bertan: Lurra espaziotik etor daitezkeen arriskuetatik babestea. Horretarako, Patxi zientzialariaren laguntza ere izango dugu. Oraingoan haitzuloko momia aurkituko dugu, eta espazioko bikingoel aurre egin beharko diegu. Arriskuan jarriko gaituzten mamuak eta aintzirako munstroa kontuan izan gabe! Zatozte gurekin eta laguniezaguzue Lurra zaintzen!



Betidanik
haur eta gazte
literaturan

murgilduta!

ibaizabal
www.ibaizabala.com

Goazen 7.0

Basakabik atearak ireki ditu berriz ere. Beste uda batez, ongi pasatzeko eta zerbait ikasteko asmoz joan dira gazteak udalera. Baina hasieratik argi geratu da ez dela ohiko uda izango hau. A ze ezusteko pila!

Amaia haurdun dago, Markel Aranburuk eramango ditu kontuak, Eneko futbolari famatua bertan dago, Igor itzuli egin da eta gainera neska-laguna dauka...

Eta hori dena gutxi balitz, zarata arraroak entzuten dira eta gauzak desagertzen dira...

Honekin guztiarekin ez gara aspertuko! :-)





Pantaila guztietan

"Go! Gazen" telesaila eta Go! Gazen APP-a inoiz baino lotuagoak egongo dira denboraldi honetan. Beti bezala, pertsonaiak kontu kontari eta elkarri bideoak eta argazkiak bidaltzen arituko dira aurten ere APPan; baita ostiraletan ere, telebistan telesaila emititzen ari diren momentuan. Eta noski, zuen mugikorretan aurkituko dituzue atal guztiak nahieran, altxor ezkutak, karaokeak, koreografiaren bideoak, telebistan ikusten ez diren txutxumutxuak...

Ostiralero ETB1-en eta, nahi duzunean, Go! Gazen APP-an eta EITBren gainerako APP eta pantailetan! :-)



3 kluba




3 KLUBA YOUTUBE KANALA

Haur eta gaztetxoentzako euskarazko eduki gogokoenak eskura ditugu Youtube plataforman, 3 kluba kanalean.

'3 ENE KANTAK', 'GOAZEN' eta beste hainbat saiotako bideo ugari ditugu ikusgai, eta handituz doa eskaintza egunez egun.

Harpidetu zaitez 3 kluba kanalean eta guztien berri izango duzu!





TXAC PLANET saioa ETB3n

Programazio informatikoan trebatzeko prest?

Roby, Ada, Eva eta Torsaiko protagonistek emango digute ongi torria teknologia informatikoaren munduan eta **TXAC PLANET** saioan murgilduz beraien eskutik ikasiko ditugu programatzeko lehen urratsak, gu ere 'koder' taldeko kide izateko!

Saio didaktiko berria ikusgai dugu ETB3n, www.eitb.eus/txacplanet webgunean eta 3 klubaren aplikazioan.



Zinema
EUSKARAZ



Gabon hauetan zoaz zinemara!

60zatu familian edo lagunartean Zinema Euskaraz programak eskaintzen dizkizun filme zirrargaraziez!



2020an
euskaraz
estreinatutako
filmak



2021

Go!
Azen

3 ENE KANTAK



URTARRILA

A	A	A	O	O	L	I
			1	2	3	
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

OTSAILA

A	A	A	O	O	L	I
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28

MARTXOA

A	A	A	O	O	L	I
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

APIRILA

A	A	A	O	O	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

MAIATZA

A	A	A	O	O	L	I
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

EKAINA

A	A	A	O	O	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

UZTAILA

A	A	A	O	O	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

ABUZTUA

A	A	A	O	O	L	I
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

IRAILA

A	A	A	O	O	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

URRIA

A	A	A	O	O	L	I
			1	2	3	
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

AZAROA

A	A	A	O	O	L	I
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

ABENDUA

A	A	A	O	O	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

Olentzero eta Mari Domingi

*Gabonak gainean ditugu jada eta urtero legez,
3 KLUBA webgunean **Olentzerori eta Errege Magoei**
eskainitako ataria prestatu dugu.*

*Eskutitza idazteko aukeraz gain, hainbat jolas ere
izango dituzue bertan, eta baita egun berezi hauetan
etxea apaintzeko irudi politak egiteko modua ere.*

Zorionak eta Urte Berri On!

2021